

TEKNOLOGIA IRISGARRIAK GARATZEKO IKERKETA **PROIEKTUETARAKO III. LAGUNTZA DEIALDIA** INDRA – UNIVERSIA FUNDAZIOA

Laguntzen ezaugarriak:

Orotara 24.000 euroko hiru laguntza deitu dituzte teknologia irisgarriak berritu eta garatzeko proiektuetarako. Proiektuek helburu izan behar dute pertsona desgaituek erabil dezaketen edo pertsona desgaituentzat erabil daitekeen edozein produktu garatzea.

Desgaitasuna duten ikertzaileak partaide dituzten proiektuei emango zaie lehentasuna.

Proiektuen ezaugarriak:

Aurkeztuko den proiektuak desgaitasunik duten pertsonentzat edo pertsona horiek erabil lezaketen edozein produktu (barne gailuak, ekipoak, tresnak eta softwarea) garatzera bideratuta egongo dira helburu hauekin:

- Jardueretan parte hartzeko mugak aurreikusi eta gainditu.
- Gorputz funtzio zein egiturak eta jarduerak babestu, lagundu, entrenatu, neurtu edo ordezte.
- Desgaitasunik duten pertsonen enplegarritasuna sustatu, mantendu eta hobetzea.

Proiektuen iraupena 12 hilabetekoa izango da gehienez.

Ikertaldeko kideek bete behar dituzten baldintzak:

- Ikertzaile nagusiek harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izan behar dute UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik proiektua gauzatzen den denbora osoan.
- Taldeko kideek harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izan behar dute UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denean.
- UPV/EHUrekin loturarik ez duten ikertzaileek jatorrizko erakundearen baimena izan behar dute proiektuan parte hartzeko. Baimen hori convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko da gainerako dokumentazioarekin batera.

GARRANTZIZKOA: Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekin duten harremana amaitzen zaien kideek **ezingo dute** gasturik egotzi egoera horrek dirauen bitartean. Ikertzaile nagusiaren ardura izango da laguntza gauzatzen den bitartean izaten diren bajen berri Ikerketaren arloko Errektoreordetzari ematea.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Ikertzaile nagusiek eskaerak aurkezteko epea **2017ko urriaren 15ean, 14:00etan**, amaituko da.

Eskaerak honako plataformen bidez aurkeztuko dira:

<https://www.indracompany.com/>
<http://www.tecnologiasaccesibles.com>

Izena emateko eredu [esteka](#) honetatik jaits daiteke.

UPV/EHUko TRAMITEA:

2017ko urriak 1	Proposatutako langileen zerrendaren I. Eranskina
------------------------	---

(egun hau barne)	<p>bidaliko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko da, mezuaren gaian "INDRA deialdia" jarrita.</p> <p>Dokumentu hori bidaltzea ezinbesteko baldintza izango da UPV/EHUren legezko ordezkariak eskaerari behin betiko onarpena emateko.</p>
2017ko urriak 8 (egun hau barne)	<p>"Erakundearen aurkezpena" agiria beteta bidaliko da UPV/EHUren legezko ordezkariak sina dezan.</p> <p>Agiria convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko da, mezuaren gaian "INDRA deialdia" jarrita.</p> <p><u>Ezingo da bermatu epe barruan igorriko direnik data honen ondoren bidalitako agiriak.</u></p>
2017ko urriak 15, 14:00ak	<p>IKERTZAILEEK ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA AMAITUKO DA.</p> <p><u>Behin eskaera aurkeztuta, agiri guztien kopiak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko dira artxibatuta gera daitezzen.</u></p>

UPV/EHUren datuak:

Honakoak dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundeari (UPV/EHUri) buruzko datuak:

- **Legezko ordezkaria:** José Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea
- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Hiria:** Leioa (Bizkaia)
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

Harremanetan jartzeko:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.eus	